

AZAROAREN 25a, INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA

2018ko azaroaren 23a, Lekarozko institutuan leituko dugun testua:

Gaur ez da azaroaren 25a, eta horregatik akaso, gaur ere solastatu beharko genuke indarkeria matxistaz, sexistaz. Milaka forma hartzen dituen indarkeriaz. Hilketez, min ematen duten kolpeez eta solasez. Akaso, gaur da eskola curriculumetan agertzen den eta inork gutik erakusten digun hezkidetzaz solastatzeko ordua. Akaso, gaur da egun egokia genero indarkeriari nahi bezainbertze bertso kantatzeko. Akaso gaur da egunik egokiena zuen txiste, bideo eta abarrek zeinen grazia guti egiten diguten eta zenbat min ematen diguten errateko.

Zenbat haserretzen gaituzten errateko. Akaso, gaur da egunik egokiena azalean markarik uzten ez duen indarkeriaz eta altxapean gelditzen den indarkeriaz, mikromatxismoaz solastatzeko. Akaso, gaur da egunik egokiena eskolako patioan edo herriko plazan salaketa hormairudia pintatzeko.

(hor duzue gurea, nahi duenak nahi duena pinta dezala, nik halaxe eginen dut, zerbait eskribitu eta leitzen segitu)

Akaso, gaur da egunik egokiena maitasun erromantikoari behin betiko aio erran eta norbera maitatzen hasteko. Akaso, gaur da egunik egokiena jabetu, ahaldundu eta karrikara ateratzeko. Akaso, gaur da egunik egokiena hitzez gain, ekintzak behar direla errateko. Akaso, gaur da egunik onena, gaia egiazki lehenbiziko planora ekartzeko, eta guk ere eskolan gaia behar den bezala tratatzeko.

Egutegian gaur ez da azaroaren 25a, baina eguneroko bizitzan atzo ere azaroaren 25a zen, eta bihar ere azaroaren 25a izanen da, zoritxarrez.